

Nomenclator, Antzinaroko giza Googlea

VATIKANOKO MUSEOA



Augusto enperadorea (K.a. 63-K.o. 14) bere nomenclatorraren memoria eskasaz kexatu ohi zen, Makrobioren arabera. Nomenclatorrak Erromako goi gizarteko hiritarren izenak, aurpegiak eta datuak gogoratu behar zituzten esklaboak ziren.

ERROMA, K.A. I. MENDEA. Makrobiok *Saturnalia* lanean jaso zuenez, Augusto enperadorea oso kontentagaitza zen bere nomenclatorrari zegokionez, eta sarritan kexu zen hark memoria nahikorik ez zuelako.

Gaur egun *nomenclator* hitzak “izenen katalogoa” esan nahi du, baina jatorrian nomenclatorrak hezurharagizkoak ziren. Erromatar politikari edo goi gizarteko kide orok behar zuen nomenclatorra alboan, giza entziklopediarenak egiteko. Oroimen izugarriko esklaboak eragin handiko pertsonen izenak ikasi behar zituzten, haien familien historia, edozein datu aipagarri, zer gertakari sozialetan nabarmentzen ziren, zer negoziotan aritzen ziren, zenbaterainoko arrakasta zuten jarduera haietan, zenbat mesede zituzten eginak, zenbat jasoak... Festetan nahiz bestelako topaketetan, esklaboak datu horiek guztiak zuzenean eman behar zizkion nagusiari, hark behar ahala. Erromako eliteen artean, maila berekoak ezagutzea eta ezagutza hori jakinaraztea funtsezkoa baitzen. Hala, nomenclatorraren rola erromatarren ustelkeria sare korapilatsuari eusteko sortu zen, eta patrizioei memoria perfektuaren ilusioa atxikitzen laguntzeko. Horregatik

nomenclator bikainenek milaka patrizioen izenak gorde behar zituzten beren markatze bizkor mnemoteknikoan.

Baina horien berri baino, nomenclator kaskarrenen berri iritsi zaigu gehiago. Esan bezala, Augusto ez zegoen batere gustura berearekin. Beti ere Makrobioren arabera, behin esklaboa Forora bidali zuen eta alde egin baino lehen zera esan omen zion: “Har ezazu gomendiozko gutun hau, han ez duzu inor ezagutzen eta”.

Seneka (K.a. 4-K.o. 65), aldiz, adineko nomenclatorrez trufatzen zen, aurpegiez ahanzten zirelako eta gezurrezko izenak asmatzen zituztelako.

Adriano enperadorea nomenclatorren hutsak etengabe zuzentzen aritzen omen zen. Beste zereginik ez zutela esaten zien eta berak, orotarikoz kezkak izanda ere, izen bat behin entzun eta bizi osoan ahanzten ez zuela aurpegiatzen zien. Orduan zertarako behar zituen nomenclatorrak? Horixe pentsatuko zuen Katon Gazteak (K.a. 95-46). Mirarizko memoria omen zuen eta, hortaz, oroimen esklaboak kontsultatu beharrik gabe lortu zuen elite nagien errespetua. ■



Arrastoak

Bi istripu, parabrisaren jatorri

BEHIN, Edouard Benedictus asmatzaile frantziarrari laborategiko ontzi bat erori zitzaion. Kristala txikituta geratu zen; txikituta baina bat eginda. Nitrozelulosa soluzio bat zeukan ontziak, lurrundu ondoren beiraren inguruan geruza moduko bat osatu zuena. Puskatu ondoren beira zatiak bat eginda atxikitzen zituen substantzia aurkitu zuen, baina orduan ez zitzaion aplikazio praktikorik bururatu.

Handik urte batzuetara, 1903an, Benedictusek jakin zuen auto istripu batean haizetakoaren kristal hautsiek neskatobati aurpegia desitxuratu ziotela. Lurrera eroritako matraren irudia etorri zitzaion burura. 24 orduan, urte batzuk lehenago ausaz aurkitutako soluzioaren antzeko zeluloide itsasgarria lortu zuen, eta haren bidez kristalezko bi xafla itsatsi zituen. Beira ijertzua sortu zuen, automozioaren bilakaeraren segurtasun elementurik garrantzitsuenetakoa. ■



MANUEL RUIZ PASCUAL

Beira ijertzua hautsitako beira zatiei bat eginda eusten die, parabrisaren asmatzaileak istripuz jakin zuenez.